



Azpeitiko Udala

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO
IDAZKARIAK.**

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak bi mila eta hamabosteko irailaren zortzian hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

**AZPEITIKO UDALAREN ETA EJREN ARTEKO HITZAR-
MENA TRAFIKOKO ZEHAPENEN JAKINARAZPENAK EUSKO
JAURLARITZAREN PLATAFORMA ELEKTRONIKOAN JARTZEKO.**

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen arabera, trafikoaren arloan eskumen zehatzaileak dituzten administrazioek Bideko Helbide Elektroniko (BHE) bat esleitura duten pertsonen elektronikoki jakinarazi behar dizkiete momentuan ematen ez diren salaketak, baita zehapen-prozedurak eragingo dituen gainerako jakinarazpenak ere.

Hori ahalbideratzeko, legeak lurralde-eremuetako toki-administrazioekin lankidetzat hitzarmenak sinatzeko aukera jasotzen da. Horren baitan, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak lankidetzat hitzarmena helarazi dio Azpeitiko Udalari, hain zuzen ere, trafikoaren arloko zehapen-prozeduraren ondoriozko egintzen jakinarazpenak bide elektronikoen bitartez egiteko. Era horretan, Azpeitiko Udalak, jakinarazpen horiek gauzatzeko Eusko Jaurlaritzaren plataforma elektronikoa erabili ahalko du.

Eta Udalbatzaren kideek, bertaratutakoek aho batez hartutako erabakiarekin Eusko Jaurlaritzako Seguratsun Sailaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetzat hitzarmena onartzea onartu dute, hain zuzen ere, trafikoaren arloko zehapen-prozeduraren ondoriozko egintzen jakinarazpenak bide elektronikoen bitartez egiteko, era horretan Udalak jakinarazpen horiek Eusko Jaurlaritzaren plataforma elektronikoa egitea ahalbideratuko da.

*Hitzarmenaren edukina behar bezala sinatuta espedientean jaso da.

Eta horrela jaso da gera dadin eta, Alkate Udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hamabosteko irailaren hogeita lauan.

O.E.
ALKATEA.

